# GUÍA LIBROS LGTBI+
# LGTBI+ LIBURUEN GIDA

**Disponibles para préstamo en Harrotu / Maileguan har daitezke Harrotun**

Servicios permanentes:

- Servicio de información LGTBI+
- Cesión de espacio y préstamo de biblioteca y mediateca
- Observatorio contra la LGTBIfobia

Zerbitzu iraunkorrak:

- LGTBI+ Argibide Zerbitzua
- Aretoen lagapena eta liburutegi eta mediateka mailegua
- LGTBIfobiaren aurkako Behatokia


**Servicio de Información, Promoción de los derechos y participaciónLGTBI del Ayuntamiento de Pamplona / LGTBI kolektiboaren inguruan informatzeko eta haien parte hartzea nahiz eskubideak sustatzeko Iruñeko Udalaren Zerbitzua**

San Gregorio 28, 31001 Pamplona / Iruña
T. 948 226 326 lgtbi@pamplona.es

Lunes 17:00-20:30, martes a viernes 10:30-13:30 y 17:00-20:30, sábados 11:00-14:00
Astelehena 17:00-20:30, asteartetik ostiralera 10:30-13:30 eta 17:00-20:30; larunbata 11:00-14:00


Harrotu CENTRO LGTBI GUNEA

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala


DL-LG NA 702-2022





## INFANTIL HAURRENDAKO
### Las cosas que le gustan a Fran

**Autoras / Egileak**
Berta Piñán
Antonia Santolaya Ruiz-Clavijo

3-8 años / 3-8 urte
Versión bilingüe en castellano e inglés / Bertsio elebiduna gaztelaniaz eta ingelesez.

Sinopsis: A las dos personas que más quiero en el mundo son a mami y a Fran. A Fran le gusta sentarse en la mesa de los papeles y estudiar libros muy gordos y escribir y escribir, pero también se pirra por la tortilla de patata y por bailar. Fran siempre me dice que la cosa que más le gusta en la vida es vivir conmigo y con mami y lo que no le gusta nada, es que le llamen por su nombre. ¡Qué raro! ¿Verdad?

Puntos claves del libro:

- Diversidad familiar.
- Amor, cuidados y conciliación familiar.
- Libro ilustrado de fácil lectura.

Sinopsia Munduan gehien maite ditudan bi pertsonak amatxo eta Fran dira. Frani paperen mahaian esertzea gustatzen zaio, eta liburu oso lodiak ikastea eta idaztea eta idaztea, baina oso gogoko ditu ere patata tortilla eta dantzatzea. Franek beti dio bizitza honetan gehien gustatzen zaiona dela nirekin eta amatxorekin bizitzea, eta ez zaiola batere, baina batere gustatzen bere izenez deitzen diotenean. Bai arraroa! Ezta?

Liburuan giltzarri diren gaiak:

- Familia-aniztasuna.
- Maitasuna, zaintza-lanak eta familia-kontziliazioa.
- Irudiz hornitutako liburu irakurterraza.

## NOVELA JUVENIL GAZTEENDAKO ELEBERRIA
### El arte de ser normal




**Autora / Egilea**
Lisa Williamson

A partir de 14 años / 14 urtetik gorakoak
Castellano / Gaztelania

Sinopsis: David Piper ha sido siempre un rarito. Sus padres piensan que es gay y el matón de la escuela lo considera un friki. Únicamente sus dos amigos saben realmente la verdad: David quiere ser una chica. El primer día en su nuevo instituto Leo Denton sólo tiene un objetivo: pasar inadvertido. Pero, en cuanto llega, llama la atención de la chica más bonita de la clase. Y, por si fuera poco, en una pelea sale en defensa de David, momento en el cual comienza a fraguarse su amistad. Todo en sus vidas está a punto de cambiar porque es muy difícil guardar un secreto en el instituto.
¿Qué significa para ti ser normal?

Puntos claves del libro:

- Realidad trans en la edad adolescente.
- Amistad, bullying, relaciones familiares, miedo a ser diferente y al rechazo de otras personas, etc.
- Historia narrada en primera persona desde las perspectivas de los dos personajes que ayuda a empatizar y conocer sus sentimientos.
- Prosa amena y sencilla para público adolescente.

Sinopsia: David Piper bitxia izan da beti. Gurasoek gay dela uste dute, eta eskolako harroputzak frikitzat hartzen du. Bere bi lagunek dakite bakarrik egia: Davidek neska izan nahi du. Leo Denton institutu berrian, helburu bakarra du lehen egunean: oharkabean pasatzea. Baina heldu orduko, deigarri gertatzen zaio gelako neskarik politenari. Eta, hori gutxi balitz, borroka batean Daviden alde ateratzen da, eta une horretan elkarren arteko laguntasuna sortzen hasten da. Beren bizitzetan dena aldatzeko zorian dago, oso zaila baita institutuan sekretu bat gordetzea.
Zer da zuretzat normala izatea?

Liburuan giltzarri diren gaiak:

- Trans errealitatea nerabezaroan.
- Laguntasuna, bullyinga, familia barruko harremanak, beldurra desberdina izateari eta besteen gutxiespenari, etab.
- Bi pertsonaien ikuspegitik lehen pertsonan kontatutako istorioa, enpatia sentitzen eta haien sentimenduak ezagutzen laguntzen duena.
- Nerabeentzako prosa atsegin eta erraza.




## NOVELA ELEBERRIA
### Bat, bi, Manchester

**Autora / Egilea**
Irati Jimenez

A partir de 18 años / 18 urtetik gorakoentzat
Euskera / Euskaraz

Sinopsis: "Bat, bi, Manchester" es una novela corta que habla sobre un amor imposible. Por un lado, tenemos a un narrador que trabaja como traductor pero que querría ser escritor: homosexual, un poco reacio, recién salido de un fracaso amoroso; por otro lado, a Aitor: un chico guapo al que todo le ha sido siempre fácil, actor, heterosexual. El azar les ha unido en Manchester y viven juntos en la misma casa; se formará una estrecha amistad entre ambos, pero se percibirá en todo momento la sombra de un deseo imposible de cumplir. Irati Jiménez ha acertado a dibujar con delicadeza un mosaico de sentimientos; recogiendo el desorden psicológico del enamoramiento en frases que se recortan, expresando el carácter interrumpido y confuso de nuestro tiempo por breves y rápidos apartados.

Puntos claves del libro:

- Visibiliza el sentirse enamorado siendo gay de un hombre que se define heterosexual.
- Libro ágil y descriptivo, facilita la comprensión de las vivencias de los hombres homosexuales.

Sinopsia: Ezinezko amodio bati buruzko eleberri laburra da "Bat, bi, Manchester". Batetik, itzultzaile diharduen baina idazle izan nahiko lukeen kontalaria dugu: homosexuala, uzkur samarra, maitasun-porrot batetik irten berria; bestetik, Aitor: dena beti erraza izan zaion zaion mutil guapoa, aktorea, heterosexuala. Halabeharrak elkartu ditu Manchesterren eta elkarrekin bizi dira etxe berean; adiskidetasun estua sortuko da bien artean, baina bete ezin den desiraren itzala sumatuko da uneoro. Sentimenduen mosaiko bat fintasunez marrazten asmatu du Irati Jimenezek; maiteminaren anabasa psikologikoa di-da ebakitzen diren esaldietan jasoz, gure garaiaren izaera eten eta nahasia atal labur eta azkarren bidez adieraziz.

Liburuan giltzarri diren gaiak:

- Gay izanik heterosexual gisa definitzen den gizon batez maitemintzea ikusarazten du.
- Liburu arina eta deskribatzailea, gizon homosexualen bizipenak ulertzen laguntzen du.




## ENSAYO
## ENTSEGUA

### Maternidades cuir

**Autoras / Egileak**

Gracia Trujillo y Eva Abril

Público adulto / Helduak
Castellano / Gaztelania

**Sinopsis:** Este libro es una compilación de voces de madres, trans* y cis, no heterosexuales y/o no heteronormativas –esto último, como ha podido o le ha parecido a cada una–. Desde el principio pensamos que el término que más se acerca al conjunto amplio de las maternidades es- queer/cuir/kuir. Lo hemos titulado Maternidades cuir, pero también podría haber sido Queerizando la maternidad: el libro habla de queerizar, de torcer, de tortillear, de atravesar, redefinir, cuestionar –y un largo etcétera– ese ideal de «maternidad» que nos encorseta y agobia. Más que una grande y libre, aquí hay relatos de maternidades en plural, con nuestros cuerpos y vidas en el centro, desobedientes e incómodos con y para las normas sexogenéricas.

El libro está atravesado por el deseo, el amor, y también el dolor. Es una pequeña muestra, a modo de fotografía (no fija) de nuestras maternidades, afectos y familias cuir, que plantean una serie de retos y aportan muchas ideas relevantes para los feminismos y su análisis sobre las maternidades –que sigue muy heterocentrado–; para la lucha lgtbi, que necesita seguir recargando las pilas feministas, y para el cambio social en general.

**Puntos claves del libro:**

- Visibiliza las maternidades queer o disidentes y reflexionar sobre el deseo de ser madre(s), en o sin pareja, trio o posibilidades varias, los periplos para conseguirlo, con o sin técnicas de reproducción asistida, las violencias institucionales y los retos de la crianza en un mundo wcisheteropatriarcal, entre otras cuestiones.
- Muestra las diversas realidades LGTBI+ y amplía el imaginario social.

**Sinopsia:** Liburu hau ama, trans* eta cis, ez-heterosexual eta/edo ez-heteronormatiboen ahotsen bilduma bat da –azken hori, bakoitzak ahal izan duen edo bakoitzari iruditu zaion moduan–. Hasieratik pentsatu genuen amatasunen multzo zabalera gehien hurbiltzen den terminoa queer/cuir/kuir dela. "Maternidades cuir" izena jarri diogu, baina "Amatasuna queerizatzen" ere izan zitekeen: liburuak hitz egiten du estutzen eta akitzen gaituen "amatasun" ideia hori queerizatzeaz, bihurritzeaz, tortilleatzeaz, zeharkatzeaz, birdefinitzeaz, zalantzan jartzeaz eta abar luze batez. Bakarra, handia eta askea baino, hemen amatasunen kontakizunak daude pluralean, gure gorputzak eta bizitzak erdigunean jarrita, arau sexugenerikoekiko ezerosoak eta desobeditzaileak.

Desioak, maitasunak eta baita atsekabeak ere zeharkatzen dute liburua. Gure amatasun, maitasun eta queer familien lagin txiki bat da, argazki (ez finko) baten antzekoa, eta hainbat erronka eta ideia garrantzitsu asko jartzen ditu mahai gainean feminismoentzat eta amatasunei buruz egiten duten analisiarentzat –oso heteroardaztuta jarraitzen du–; LGTBI borrokarentzat, pila feministak kargatzen jarraitzeko beharra duena, eta gizarte aldaketarentzat, oro har.

**Liburuan giltzarri diren gaiak:**

- Amatasun queer edo disidenteak ikusarazten ditu eta gogoeta egiten du ama(k) izateko desioari buruz, bakarrik, bikotekidearekin, hirunaka edo beste hainbat aukera; ama izatea lortzeko gorabeherak, laguntza bidezko ugalketako teknikekin ala gabe; indarkeria instituzionalak, eta hazieraren erronkak mundu zisheteropatriarkal batean, besteak beste.
- LGTBI+ errealitate askotarikoak erakusten ditu, eta gizartearen imajinarioa zabaltzen du.




## NOVELA GRÁFICA
## ELEBERRI GRAFIKOA

### Corazones calientes, historia de amor

**Autores / Egileak**

Ralf Köning y
Detlev Meyer

Público adulto / Helduak
Castellano / Gaztelania

**Sinopsis:** Corazones calientes sí, porque hay voyeurs, y hombres que tienen relaciones sexuales en el bosque. Señores que durante las vacaciones engañan a su pareja y personajes que se dejan llevar por las más bajas pasiones. Pero Historias de amor también, porque al igual que todos los enamorados, los protagonistas de este libro se leen por teléfono cartas de amor, se ponen sus discos favoritos y cantan en la bañera a grito pelado. Las historias de amor no son únicamente patrimonio de las parejas heterosexuales, asépticas y guapas.

**Puntos claves del libro:**

- Divertidas historias humorísticas ilustradas protagonizadas por hombres homosexuales.
- Ilustraciones de diferentes relaciones eróticas entre hombres.
- Cómic libro de poemas con divertidas narraciones breves.

**Sinopsia:** Bihotz beroak bai, voyeurrak daudelako, eta basoan harreman sexualak dituzten gizonak. Oporretan bikotekidea engainatzen duten gizonak eta pasiorik apalenek eramaten dituzten pertsonaiak. Baina baita maitasun istorioak ere; izan ere, liburu honen protagonistek, maitemindu guztiek bezala, maitasun-gutunak irakurtzen dizkiote elkarri telefonoz, diskorik gogokoenak jartzen dituzte eta deiadarka abesten dute bainuontzian. Maitasun istorioak ez dira soilik bikote heterosexual, aseptiko eta ederren ondarea.

**Liburuan giltzarri diren gaiak:**

- Gizon homosexualak protagonista dituzten umorezko istorio ilustratu dibertigarriak.
- Gizonen arteko harreman erotiko desberdinen irudiak.
- Komiki poema liburua, narrazio labur dibertigarriekin.

## DVD

### Mi nombre es Harvey Milk




**Director / Zuzendaria**

Gus Van Sant

Mayores de 13 años /
13 urtetik gorakoak
Castellano e inglés, disponible
con subtítulos / Gaztelania
eta ingelesa, azpitituluekin

**Sinopsis:** En 1977, Harvey Milk fue elegido concejal del Ayuntamiento de San Francisco, convirtiéndose en el primer hombre gay reconocido en ocupar un cargo público. No sólo significó una victoria para los derechos de los gays; supo crear coaliciones con grupos muy diversos, desde la tercera edad a los sindicalistas. Harvey Milk cambió la imagen del defensor de los derechos civiles. Antes de su prematura muerte en 1978, se había convertido en un héroe para los estadounidenses. En Mi nombre es Harvey Milk, el oscarizado Sean Penn encarna a Harvey Milk a las órdenes de Gus Van Sant, nominado por la Academia. La película está rodada íntegramente en San Francisco, basada en un guión original de Dustin Lance Black, y producida por los oscarizados Dan Jinks y Bruce Cohen.

**Puntos claves de la película:**

- Película basada en la vida del político Harvey Milk, que relata hechos históricos reales. Detallan el contexto y la situación respecto al movimiento LGTBI+ de la época y muestra acontecimientos históricos importantes en la lucha por los derechos LGTBI+ en EEUU.
- Duración: 128 minutos.

**Sinopsia:** 1977an, Harvey Milk San Frantziskoko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten, eta kargu publiko bat bete zuen lehen gizon gay aitortua izan zen. Ez zen soilik garaipen bat izan gayen eskubideentzat; talde anitzekin koalizioak sortzen jakin zuen, hala nola adinekoekin eta sindikalistekin. Harvey Milkek eskubide zibilen defendatzailearen irudia aldatu zuen. Bere heriotz goiztiarra baino lehen, 1978an, estatu batuarrentzako heroi bihurtu zen. Mi nombre es Harvey Milk filman Oscar sarien irabazle Sean Penn-ek Harvey Milk interpretatzen du Akademiak hautagai izendatutako Gus Van Sant-en zuzendaritzapean. Filma San Frantziskon filmatu zen oso-osorik, Dustin Lance Black-en gidoi original batean oinarrituta dago, eta Dan Jinks eta Bruce Cohen Oscar saridunek ekoitzi zuten.

**Filman giltzarri diren gaiak:**

- Harvey Milk politikariaren bizitzan oinarritutako filma, benetako gertakari historikoak kontatzen dituena. Garai hartako LGTBI+ mugimenduaren testuingurua eta egoera zehaztu eta AEBetako LGTBI+ eskubideen aldeko borrokako gertaera historiko garrantzitsuak erakusten ditu.
- Iraupena: 128 minutu.

## Virginia Woolf (1882-1941)

Virginia Woolf, escritora británica nacida en 1882, es considerada como una de las grandes autoras del siglo XX. Podría decirse que su técnica narrativa del monólogo interior, mediante la cual se intenta representar los pensamientos de un personaje en su forma más primitiva, y su estilo poético, destacan como las contribuciones más importantes a la novela moderna de la época.
Virginia fue además pionera en reflexionar sobre el estatus de la mujer en la sociedad y su propia identidad, tal y como quedó reflejado en su obra "Una habitación propia" (1932), siendo con ello referente del feminismo internacional.
Asimismo, no solo es destacada por su aportación al feminismo, sino también por visibilizar realidades LGTBI. En su novela "Orlando: una biografía", publicada el 11 de octubre de 1928, por ejemplo, quedan reflejados varios temas como la transexualidad y las relaciones homosexuales. Woolf, vivió su bisexualidad abiertamente, ya que además de estar casada con Leonard Woolf, mantuvo una relación con Vita Sackville-West.

Virginia Woolf, 1882an jaiotako idazle britainiarra, XX. mendeko idazle handienetako bat da. Esan daiteke Woolfen barne-bakarrizketaren teknika narratiboa, pertsonaia baten pentsamenduak bere forma primitiboenean irudikatzeko erabiltzen dena, eta estilo poetikoa, garaiko eleberri modernoaren ekarpen garrantzitsuenak direla.
Gainera, aitzindaria izan zen emakumeak gizartean zuen estatusari eta bere nortasunari buruz hausnartzen, "Gela bat norberarena" (1932) obran islatu zuen bezala, eta horrekin nazioarteko feminismoaren erreferente izan zen.
Halaber, feminismoari egindako ekarpenagatik ez ezik, LGTBI errealitateak ikusarazteagatik ere nabarmentzen da. Esaterako, "Orlando: A Biography" eleberrian, 1928ko urriaren 11n argitaratua, transexualitatea eta harreman homosexualak bezalako hainbat gai islatzen dira. Woolfek bere bisexualitatea modu irekian bizi izan zuen; izan ere, Leonard Woolfekin ezkonduta egoteaz gain, Vita Sackville-Westekin harremana izan zuen.

## AUTORAS LGTBI+ / LGTBI+ EGILEAK

## Kattalin Miner Pérez (1988)

Kattalin Miner nació en 1988 en Hernani (Gipuzkoa). Es conocida por su trabajo como escritora y como columnista en varios medios de comunicación. Además, tiene una larga trayectoria como militante transfeminista y se identifica como "bollera" dentro de las realidades LGTBI+. Kattalin se licenció en periodismo y, además, tiene el máster en Teoría de la Literatura y Literatura Comparada y el máster en Igualdad de Hombres y Mujeres. Los temas principales que narra en sus trabajos son el transfeminismo, los márgenes, las relaciones de poder y la ruptura de la norma cisheteronormativa.
Sus obras más conocidas son; por un lado, *"Nola heldu naiz ni honaino"*, novela que publicó en 2017 que muestra la vida de Jezabel, su protagonista, una mujer que vive cómodamente, toma decisiones, algunas grandes, otras no tanto, pero todas importantes. Una de esas decisiones aparentemente pequeñas es la que cambia su vida, la hace sentir fuera de lugar, como el pez nadando dentro de una taza de café que se ilustra en la portada de la novela. Esta novela ganó el premio *"Igartza Saria"*. Por otro lado, *"Moio: gordetzea ezinezkoa zen"* es un ensayo que habla de las realidades trans, concretamente cuenta las vivencias de un joven con realidad trans que se suicidó diez años atrás. Con este trabajo Kattalin consiguió el premio *"Tene Mujika"* en 2019.

Kattalin Miner 1988an jaio zen, Hernanin (Gipuzkoa). Hainbat komunikabidetan idazle eta zutabegile gisa egindako lanagatik da ezaguna. Gainera, ibilbide luzea egin du militante transfeminista gisa, eta, LGTBI+ errealitateen barruan, "bollera" gisa identifikatzen da. Kattalin kazetaritzan lizentziaduna da eta, gainera, masterra du Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan, eta masterra Gizon eta Emakumeen Berdintasunean. Bere lanetan kontatzen dituen gai nagusiak transfeminismoa, marjinak, botere-harremanak eta arau ziseteronormatiboaren haustura dira.
Bere lanik ezagunenak hauek dira: alde batetik, "Nola heldu naiz ni honaino", 2017an argitaratu zuen eleberria; Jezabelen bizitza erakusten du, protagonista, eroso bizi den emakumea, erabakiak hartzen dituena, batzuk handiak, beste batzuk ez hainbeste, baina denak garrantzitsuak. Eta ustez txiki dirudien erabaki batek bizitza aldatuko dio. Eta hasiko da sentitzen eleberriaren azaleko arraina bezala, kafean igerian, lekuz kanpo, beraz. Eleberri honek "Igartza Saria" irabazi zuen. Beste alde batetik, "Moio: gordetzea ezinezkoa zen" saiakerak trans errealitateei buruz hitz egiten du; zehazki, duela hamar urte bere buruaz beste egin zuen trans errealitateko gazte baten bizipenak kontatzen ditu. Lan honi esker Kattalinek "Tene Mujika" saria irabazi zuen 2019an.